

# AMA

## Chant traditionnel Basque

Maitatua sobera nintzelarik haurra, ez nakien nik zer zen amaren beharra;  
bortu batean orai naiz bakar bakarra, hartaz orhoitorduko heldu zaut nigarra.  
Hegalñoak azkartzen sendituz geroztik, baitoazi xoriak ohantze gozotik,  
halaber joan ninduzun amaren altzotik... ahantzia bainute herrian engoitik!

Bainan ama gaixoak ez nu ez ahantzi: maiz daut Eskual Herritik igortzen goraintzi:  
hautsi nion bihotza, nuenean utzi; neretzat baizik ez da halere han bizi.  
Bero daukat nik ere bihotzean garra, Jinkoak piztu zauntan eskualdun pindarra!!  
ama baitut oraino minetan indarra, ama, gau ilhunean, argidun izarra!!!

Nere bortu gainetan baniz enoatzen, gaizkirat balinbazaute bihotza lerritzen,  
zure begi garbiez, ama, naiz orhoitzen, eta lanari gero kuraiekin lotzen!  
Oi maiz ametsetarik izan dut gogoan goxoki nindagola lehen ohakoan,  
aingeruer begira, ganbera xokoan, eta, zu hantxet irriz, ama, ner'ondoan!

Frangotan huts ohiez orhoitzen ere niz... ama, gazte denbora berriz haste balitz!  
nigar egin-arazi dautzut anhitz aldiz, nigarrak niri zauzkit jauzten orai borthitz!  
Aspaldi du naizela sor-etxetik joana, hamargarren urthea hurbil iragana:  
noiz othe naiz hemendik jinen zure gana, ama, saristatzerat zor dautzutan lana?

Untziak noiz nu berriz horrat eremanen? etxerako bidexka noiz dut nik iganen?  
eta zutarik, ama, musu bat ukanen? oi! ba laster dautazu agian emanen!  
Aho batek eztiki diolarik: Ama! hitz goxo bakar horrek mundu bat derama...,  
ama baino hoberik zer ditake asma? haren maithatzen beraz gaiten oro thema.

Avril 1911

# AMA

Arrangements: Jacques Ballue

Traditionnel

Pas trop vite  $\text{♩} = 52$

Ténors I  
Mai - ta - tu - a so - be - ra nin - tze - la - rik haur - ra ez na - ki - en - nik

Ténors II

Ténor  
Mai - ta - tu - a so - be - ra nin - la - rik haur - ra ez na - ki - en - nik

Basses II  
nin - tze - la rik haur - ra

6 *(sans trainer entre les reprises...)*

T. 1  
zer zen a - ma - ren be - har - ra Bor - tu ba - te - an o - rai naiz ba - kar ba - kar

T. 2

T. *piu f*  
zer zen a - ma - ren be - har - ra Bor - tu ba - te - an o - rai naiz ba - kar ba - kar

B. 2  
a - ma - ren be - har - ra

12

T. 1  
ra har - taz or - hoit or - du - ko hel - du zaut ni - gar - ra As

T. 2

T.  
ra har - taz or - hoit or - du - ko hel - du zaut ni - gar - ra As

B. 2

il est possible ici de laisser les Ténors 1 avec paroles  
17 et les autres bouches fermées...

T. 1  
pal - di du\_\_ nai - ze\_\_ la sor - et - xe - tik joa - na\_\_ ha - mar - gar - ren\_\_ ur -

T. 2

T.  
pal - di du\_\_ nai - ze\_\_ la sor - et - xe - tik joa - na\_\_ ha - mar - gar - ren\_\_ ur -

B. 2

22 *(sans trainer entre les reprises...)*

T. 1  
te - a hur - bil i - ra - ga - na Naiz o - the naiz he - men - dik ji -

T. 2

T. *piu f*  
te - a hur - bil i - ra - ga - na Naiz o - the naiz he - men - dik ji -

B. 2

27

T. 1  
nen zu-re ga - na A - ma sa-ri - sta - tze - rat zor dau-tzu-tan la - na

T. 2

T.  
nen zu-re ga - na A - ma sa-ri - sta - tze - rat zor dau-tzu-tan la - na

B. 2